



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades e
Investigación
Dirección de Investigación

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 30koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2020-2021 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituena.

Ikerketa Orokorrean, eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntza berriak ematea, 2020-2021 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharrezko zenbatekoa adieraziz. Baita ere, I modalitateko onuradun bakoitzak (horrelakorik egonez gero) bidairako jasoko duen zenbatekoa aipatzen da.

Kontratuak 12 hilabeterako izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, lerroak, arloak eta lehentasunaren arabera zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 31. artikulua zehazten duen bezala beteko dira

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz

Laugarrena.- IV. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratu izanaren arrazoiak zehaztuz

Bostgarrena.- Dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak 2020ko uztailaren 28ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakitzea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuek Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 30ean.



GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea